AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5549

1573/2013 EBAZPENA, abenduaren 20koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, M.ª Luz Jauregui García andrea Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari kargutik kentzen duena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 1eko 686/2012 Ebazpenaren bidez (uztailaren 10eko EHAA, 134. zk.), M.ª Luz Jauregui García andrea Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– M.ª Luz Jauregui García andrea Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari kargutik kentzea, eta egindako zerbitzuak eskertzea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2013ko abenduaren 20tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau jakinaraztea interesdunari, Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuari, Gipuzkoako Eskualdeari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 20a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.